

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTOMAÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren zergadun errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2021eko hirugarren hiruilekoko ordainagiriak

Prestatu delarik Artomañan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2021eko bigarren hiruilekoko zergadun errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun balioudenez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Artomañako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 29an hasi eta abenduaren 29an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Abenduaren 29an kobratuko dira helbideratutako ordainagiriak.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Artomañako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artomaña, 2021eko urriaren 26a

Lehendakaria
JESÚS MARIA LARREA SOJO